

Funtsezko jarduerak

Gure enpresak ekoizteko modu ahalik eta efizienteena zein produktiboena izateko produkzio-prosezu zehatz bat aukeratu dugu. Prosezu hau bikaina da, oinarrian, antolakuntza eta elkar-lana ditugulako enpresako goiburu bezala. Non garrantzitsuena hurrengo izango delarik: Produktu ahalik eta perfektuena produzitzea, makinek eta garraioek gutxieneko gasak (CO2 gasak) askatzea eta efizienteki lan egitea dira.

Langile guztion elkar-lana ezinbestekoa da enpresak ondo funtziona dezan. Bakoitzak bere egin beharra bete eskero enpresak efizienteki funtzionatuko lukeelako. Guztion lana beharrezkoa da, langile batek bere lana beteko ez balu enpresak ez lukeelako ondo funtzionatuko. Horregatik, Mohcinek enpresaren diseinu bereizgarria sortuko du eta honetaz gain zuzendu egingo du, June Muguruzak bere hitz egiteko modu erakargarriari esker bezeroekin eta hornitzaileekin hitz egingo du. Azkenik, Anuskak eta June Galarragaren esku-lanarengatik enpresak erritmo ezin hobe hartuko du produzitzeko orduan.

Gure funtsezko jarduera, perfumearen kristalezko botila bereizgarrien diseinua sortzea da. Honek, forma konikoa edukiko du. Lehenik eta behin, hornitzaileei kristala eta lurrina eskatuko genieke, hau Junek egingo luke. Ondoren, enpresara eskatutako produktuak iristerako, bertan ditugun labe handietan sartuko genuke kristala. Hau urtu eta gero, gure diseinua duten moldeetan sartuko genuke forma hartu dezaten. Jarraian, ditugun makina/izozkailuetan sartuko genuke hainbat orduz guztiz solidifikatu arte. Azkenik, botila izozkailuetatik aterako genuke eta lurrina bertan sartuko genuke. Prest egongo liratezke denda desberdinetara bidaltzeko!

